EUROREGION EUROESKUALDEA EUROREGIÓN
NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA

PROIEKTU DEIALDIA **“EUROESKUALDEKO BERRIKUNTZA” 2026**

BALDINTZEN AGIRIA

1. Xedea 2
2. Lurralde hautagarriak 3
3. Arloak 3
4. Erakunde onuradunak 5
5. Zenbatekoa eta finantzaketa 5
6. Aurkezpena eta egutegia 7
   a. Deialdiaren egutegia 7
   b. Hautagaitza eta dokumentazioa 7
   c. Proiektuak gauzatzeko egutegia 8
7. Ebaluazio-prozedura 8
8. Hautaketa-irizpideak 8
   a. LEHENENGO FASEA 9
   b. BIGARREN FASEA 9
9. Diru-laguntzak ematea eta justifikazio agiriak 10
   a. Diru-laguntzak ematea 10
   b. Justifikazio tekniko eta finantzarioa 11
10. Komunikazioa 11
11. Informazioa eta kontaktua 11

Akitania Berria Euskadi Nafarroa LLET Euroeskualdea 2011ko abenduaren 12an sortu zen Lurralde Lankidetzarako Europako Talde bat da, helburutzat Euroeskualdeko eta mugaz gaindiko lurraldearen garapen ekonomikoa, soziala eta kulturala sustatzea duena, aldi berean, lurraldearen barruko trukeak bultzatuz.

Euroeskualdeko proiektuen deialdiek Akitania Berria Eskualdean, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan dauden bazkideen arteko lankidetza-ekintzak sustatzeko finantzazio-laguntza ematen dute.

1.XEDEA

Dokumentu honen helburua 2026ko "Euroeskualdeko Berrikuntza" proiektuen deialdiarako baldintzak definitzea da.

Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak hiru lurraldeetako espezializazio adimendunaren sektore estrategiko eta emergenteetako proiektuak eta eragileak babesten ditu Euroeskualdeko Berrikuntzari zuzendutako proiektuen mugaz gaindiko deialdiaren bidez. Lankidetza bidezko proiektu traktoreen bidez Euroeskualde mailako ekonomia lehiakor eta digitalizatua sustatzea du helburu, hiru lurraldeetako osagarritasun eta sinergiak aprobetxatuz.

Hiru lurraldeen arteko lankidetzaren eragileei laguntzeko prozedura honek **400.000 euroko** aurrekontua du. Deialdi honen zuzkidura osoa LLETek 2026. urterako duen aurrekontuan sartuta dago.

Proiektuen deialdiak, hiru aldeko izaera duten ekimenak bultzatu nahi ditu hasieratik, horretarako, proiektuek **LLETko kide den lurralde bakoitzeko bazkide bat** izan beharko dute**, gutxienez**.

2.LURRALDE HAUTAGARRIAK

Euroeskualdeko hiru lurraldeetako bazkideek parte hartu behar dute (Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa).



Eremu hautagarritik kanpo dauden lurralde eta erakundeek, lankidetzan parte hartu ahal izango dute kide elkartutzat hartuta, baina ezingo dute diru-laguntzarik jaso.

3.ARLOAK

Deialdi honetako gaiak Euroeskualdearen 2021-2027 Plan Estrategikoan zehazten den bigarren lan-ardatzari dagozkio, "Garapen adimenduna, lehiakorra, inklusiboa eta jasangarria".

(https://www.euroregion-naen.eu/wp-content/uploads/2019/12/PS_EUSK_site_.pdf). Euroeskualdeko estrategiak 6 sektore estrategiko bateratu identifikatu ditu hiru lurraldeen espezializazio adimendunaren estrategietatik abiatuta:

- Biozientziak, osasuna, zilar ekonomia
- Fabrikazio aurreratua, aeronautika, mugikortasun elektrikoa
- Nekazaritza elikagaien industria
- Energia berriztagarriak
- Habitat jasangarria, basoa eta zura
- Sormen eta kultur-industriak, ikus-entzunezko industria

Mugaz gaindiko eta tokiko ikuspegitik Euroeskualdearen **garapen lehiakor eta erresilientea** sustengatzea, **iraultza digitalaren** baitan **jasangarritasunaren** zerbitzura dagoen **espezializazio adimentsuaren** bitartez ezagutza eta berrikuntza sortzea, eta **ekonomia zirkular** batekiko apostu egitea dira Akitania Berria Euskadi Nafarroa LLETak, proiektuen deialdi honen bidez, landu nahi dituen lehentasunak.

Deialdi hau Europako lehentasunekin bat datozen zeharkako elementu batzuetan oinarritzen da: trantsizio ekologiko, digital bidezkoa, berrikuntza eta ezagutzaren sorrera, ekosistemen arteko lankidetza eta garapen jasangarria sustatzea. **Digital Innovation Hubetan (DIH): BDIH, DIHNAMIC eta IRIS** eskuragarri dauden azpiegitura eta aktibo teknologikoetarako sarbidea.

Aurreko deialdietan programatutako eragiketen jarraipena proposatzen duten proiektuek elementu berriak izan beharko dituzte gutxienez eremu hauetako batean:

- Lankidetza.
- Proiektuaren helburuak eta aurreikusitako emaitzak.
- Lurralde estaldura.

Jarraitutasun proiektuak:

- Gehienez hiru edizioetako dirulaguntzaz onuratu daitezke « Euroeskualdeko Berrikuntza » Proiektuen Deialdian, betiere aurretik definitu bezala, elementu berrien integrazioa erakusten badute
- Ez dira onartzen hiru edizio edo gehiagotan "Lankidetza estrategiko" programaren irabazle izan badira
- Ez dira onartzen finantzatutako hiru edizio edo gehiago metatu dituztenean, programa guztiak batuta (Euroeskualdeko berrikuntza proiektuen deialdia eta/edo Lankidetza estrategikoa) kontuan hartuta.

4.ERAKUNDE ONURADUNAK

Proiektuen deialdiaren helburua hiru lurraldeak batzen dituzten ekimenak babestea da, haien sorreratik amaitzen diren arte, eta **LLETko kide diren lurralde bakoitzeko erakunde bazkide bat izan beharko dute gutxienez.**

Proiektuen deialdian parte har dezaketen erakunde onuradunak nortasun juridikoa duten entitate edo erakundeak dira, publikoak zein pribatuak (enpresa pribatuak, erakunde publikoak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak), guztiak Akitania Berriko Eskualdean, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan kokatuak.

Onuradunek Akitania Berriko Eskualdean, Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroako Foru Erkidegoan izan behar dute egoitza edo egoitza soziala. Bestela esanda, onuradunek lurralde jakin batean izan behar dute egoitza, eta helbideratze hori dagokion IFK edo SIRET zenbakiaren bidez egiaztatu behar da.

5.ZENBATEKOA ETA FINANTZAKETA

Proiektuen deialdi honen zuzkidura 400.000 eurokoa da guztira.

Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak deialdiaren esparruan emandako diru-laguntzen gehieneko zenbatekoa proiektuaren kostu hautagarri osoaren %50ekoa izan daiteke, eta **75.000 euroko gehieneko diru-laguntza eskainiko du aurkeztutako proiektu bakoitzeko**.

Proiektuak gutxienez bere kostu hautagarri osoaren %20ko autofinantzaketa izan beharko du.

Proiektu batek deialdi honetako diru-laguntza jasotzeaz gain, Akitania Berriko Eskualde Kontseiluaren, Eusko Jaurlaritzaren edo Nafarroako Foru Gobernuaren dirulaguntza jaso ahal izango du, ohiko laguntza-baliabideen bidez, eta baldin eta honako baldintza hauek betetzen baditu:

- Diru-laguntza horien baturak (Euroeskualdeko Berrikuntza proiektu deialdiaren diru-laguntzaren eta eskualde-mailako diru-laguntzaren arteko batura) ezin du proiektuaren guztizko kostuaren hautagarri **%50** gainditu.

- Proiektuaren izaerak, helburuek eta finantzaketak diru-laguntzen metaketa justifikatu behar dute.



- Gehieneko dirulaguntza
- Gutxieneko autofinantziazioa
- Beste finantzaketa-iturri batzuk (dirulaguntza publikoak edo pribatuak, diru-sarrerak, babesak, etab.)

Honakoak izango dira gastu hautagarriak:

- Langileen gastuak.
- Bidaia, ostatu eta mantenu-gastuak.
- Kanpoko zerbitzuen gastuak.
- Inbertsioa eta ekipamendua, 500 €-tik beherakoa.
- Digital Innovation Hub (DIH) hauetan BDIH, IRIS eta DIHNAMIC dauden gaitasunak, azpiegiturak eta aktibo teknologikoak erabiltzeko gastuak.

Honako gastu hauek ez dira hautagarriak izango:

- Proiektua prestatzeko gastuak.
- Gastu orokorrak, bulego-gastuak eta administrazio-gastuak.
- Proiektuko bazkideek beren artean jaulkitako fakturetan oinarritutako gastuak.
- Proiektua hautatu aurretik egindako gastuak.
- Zeharkako zergak (BEZ), berreskuratu edo konpentsatu daitezkeenean.
- Inbertsioak eta ekipamenduak (500 euro baino gutxiagoko ekipo txikietan egindako inbertsioak izan ezik).
- Banku gastuak.
- "Gastu hautagarrien" atalean sartuta ez dagoen beste edozein gastu

Gastuen hautagarritasun-aldia proiektua hautatu eta hurrengo egunean hasiko da.

BEZari lotuta ez dauden egituren kasuan, ekarpena kostu osoari buruzkoa izango da, BEZa barne. Onuradunak ogasun agiri bat aurkeztu beharko du BEZa berreskuratzen ez duela justifikatzeko.

Diru-laguntza minimis erregelamenduaren menpekoa da (Europar Batzordearen 2020/972 (EB) Erregelamendua, 2020ko uztailaren 2koa). Erakunde onuradunek deialdiari erantsitako erantzukizunpeko adierazpena bete beharko dute.

6.AURKEZPENA ETA EGUTEGIA

A. DEIALDIAREN EGUTEGIA

Proiektuen deialdi honen egutegia honako hau da:

- Euroeskualdearen web orrian (www.euroregion-naen.eu) zabalik dago eskaerak egiteko epea 2026ko irailaren 01etik urriaren 09ra 11:59ak arte. Ez dira onartuko 2026ko urriaren 09ko 11:59tik aurrera aurkeztutako hautagaitzak.

- Deialdiaren ebazpena deialdia itxi eta gehienez 3 hilabeteko epean emango da..

Osatu gabeko espediente orok 7 eguneko naturala epea izango du, jakinarazpen-datatik zenbatzen hasita, osatzeko. Eskatutako dokumentazioa aurkeztu gabe epe hori igarotzen bada, espedientea automatikoki baztertuko da. **Ezingo da zuzendu konpromiso-ekitaldian eta finantzaketa-planean sinadurarik ez egotea**.

B. HAUTAGAITZA ETA DOKUMENTAZIOA

Proiektuak Euroeskualdearen webgunean **(www.euroregion-naen.eu)** aurkeztu behar dira, formatu telematikoan, eskabide elektronikoa bete eta honako dokumentu hauek aurkeztuz:

- **Proiektuaren fitxa**, Euroeskualdeko hiru lan-hizkuntzetan (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez).
- Bazkideek sinatutako **konpromiso-adierazpena** (sinadura elektronikoa edo eskaneatua).
- **Erantzukizunpeko adierazpena** minimis arauari buruzko xedapenei dagokiona, proiektu bazkide bakoitzarena.
- **BEZaren** erantzukizunpeko adierazpena, proiektu bazkide bakoitzarena.
- Bazkideek sinatutako **finantzaketa-plana** (sinadura elektronikoa edo eskaneatua).

Erregistro-prozesua amaitzean, hartze-agiri bat bidaliko da, mezu elektroniko gisa. Ez da paperezko espedienterik onartuko.

Dokumentuak jatorrizko formatuan gorde behar dira, eta Euroeskualdeko langileen eskura jarri, hala eskatzen badute.

Proiektua hautatuz gero, hitzarmena sinatzen den egunean, bazkideek agiri osagarriak aurkeztu beharko dituzte:

- IFK edo SIRET
- RIB edo banku-kontuaren ziurtagiria, SEPA formatuan (IBAN, BIC), banku-agintaritzak sinatua.

C. PROIEKTUAK GAUZATZEKO EGUTEGIA

Proiektuak **ezin du 18 hilabete baino gehiago iraun**, hautaketa jakinarazten den egunetik aurrera.

Hautaketa egin aurretik amaitutako proiektuak ez dira kontuan hartuko.

Proiektuak hautaketa-data baino lehen hasita egon daitezke, baina hautapen-dataren hurrengo egunetik aurrera baino ezingo dira hautatu gastuak.

7.EBALUAZIO-PROZEDURA

Proiektuen deialdira aurkeztutako espedienteak hainbat fasetan ebaluatzen dira:

1. Proiektuak eta bazkideak onartzeko irizpideak egiaztatzeko fasea.
2. Ebaluazioa bi fasetan egingo da
   a. Proiektuaren euroeskualdeko dimentsioa irizpidea ebaluatzeko lehn fasea. 12.5/25 nota gainditzen ez duten proiektuak ez dira bigarren fasera pasako.

   b. Espedienteak ebaluatzeko bigarren fasea, deialdiaren gainerako irizpideetan oinarrituta. .
3. Euroeskualdeko Batzorde Betearazlearen hautaketa.

8.HAUTAKETA-IRIZPIDEAK

Ebaluazioa 100 punturen gainean egingo da, bi fasetan banatuta.

Proiektuek 5 puntu finko gehigarri lortu ahal izango dituzte, gutxienez bazkide batek baldintza hauetako bat betetzen badu:

- Proiektuak gutxienez **bazkide berri** bat sartzen du, eta bazkide berri bezala ulertzen da Euroeskualdeak finantzatutako inolako proiektutan aurretik parte hartu ez duen entitatea.
- Proiektuak gutxienez bazkide bat sartzen du, aurretik Euroeskualdeak finantzatutako proiektuetan parte hartu duen entitatea, baina **2021-2027 Plan Estrategikoaren / programazioaren esparruan finantzaketarik jaso ez duena.**

Puntuazio-gehikuntza **bitarra** izango da; beraz, **0 edo 5 puntu** baino ezingo dira eman. Baldintza horietako bat betetzen duen bazkide bat edo gehiago izateak **guztira 5 puntu** ematea ekarriko du; ez da metaketarik, ponderaziorik edo gehikuntza gehigarririk izango, baldintza horiek betetzen dituzten bazkideen kopurua edozein dela ere.

Proiektuko bazkiderik batek ere ez baditu betetzen ezarritako baldintzak, proiektuak ez du puntu gehigarririk jasoko irizpide honengatik.

Baldintza horiek betetzen direla egiaztatuko da bazkideak beren **SIRET/CIF** bidez identifikatuz.

A. LEHENENGO FASEA

Lehenengo hautaketa-faserako irizpide hau erabiliko da:

Proiektuak Euroeskualdean duen dimentsioa	25 puntu

B. BIGARREN FASEA

Biharren hautaketa-faserako irizpide hauek erabiliko dira::

Lankidetzaren garrantzia	**15 puntu**
Izaera berritzailea	**20 puntu**
Proiektuaren tematika eta ekintza planaren egokitasuna proiektu-deialdiaren xedearekiko: ekintzen bideragarritasuna, egikaritze-egutegia eta aurrekontua	**25 puntu**
Euroeskualdeko eremuan zabalkundea eta komunikazioa	**10 puntu**
Jarraipena denboran – Proiektuaren iraunkortasuna eta lankidetza	**5 puntu**

9.DIRU-LAGUNTZAK EMATEA ETA JUSTIFIKAZIO AGIRIAK

A. DIRU-LAGUNTZAK EMATEA

Emandako diru-laguntzak Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearen LLET proiektuen deialdiaren esparruan esleitutakoak izango dira. Laguntza hauek LLETen Batzordeak onartu eta laguntza emateko hitzarmenean jasotako finantzaketa-plan globalaren arabera banatzen dira bazkideen artean.

Euroeskualdeko Batzorde Betearazleak proiektuei emango zaien diru-laguntza doitzeko eskumena izango du, proiektuen deialdiaren aurrekontu osoarekin bat etor daitezen, betiere proiektuan bideragarritasuna eta gauzatzea bermatuz, eta eskatutako diru-laguntza gehienez % 15 murrizteko mugarekin.

Era berean, 7. apartatuan deskribatutako ebaluazio-prozesua gainditu duten baina aurrekontu-eskuragarritasunik ezagatik hautatuak izan ez diren proiektuak erreserba-zerrenda batean sar daitezke. Zerrenda hori bakarrik aktibatuko da hautatutako proiektuetako batek edo batzuek finantzaketari uko egiten badiote. Kasu horretan, ebaluazio-prozesuan lortutako puntuazioaren araberako lehentasun-hurrenkera errespetatuko da. Erreserba-zerrendako proiektuei ematen ahal zaien dirulaguntza askatzen diren krediduen arabera egokituko da, eta baliteke hasiera batean eskatutako zenbatekoarekin bat ez etortzea.

Diru-laguntzak honela ordainduko zaizkie taldeburuei (Konpromiso-adierazpenean definitutakoaren arabera):

- Laguntzaren % 40 LLETen eta proiektuaren arteko hitzarmena sinatzerakoan.
- Laguntzaren % 60 proiektuaren amaieran.
- Diruz lagundutako proiektua osorik gauzatzen ez bada, dirulaguntzaren ordainketa benetan gauzatutako eta justifikatutako gastu hautagarrien ehunekora egokituko da..

Taldeburuak konpromisoa hartzen du diru-laguntzaren zatia bere bazkideei transferitzeko, eskaera aurkezteko unean ezarritako banaketaren arabera.

Era berean, 7. apartatuan deskribatutako ebaluazio-prozesua gainditu duten baina aurrekontu-eskuragarritasun ezagatik hautatuak izan ez diren proiektuak erreserba-zerrenda batean sar daitezke. Zerrenda hau bakarrik aktibatuko da hautatutako proiektu batek edo batzuek esleipen-erabakia argitaratu eta 5 hilabeteko gehienezko epean uko egiten badute. Kasu horretan, ebaluazio-prozesuan lortutako puntuazioaren araberako lehentasun-hurrenkera errespetatuko da. Erreserba-zerrendako proiektuei, hala badagokio, emango zaien dirulaguntza askatzen diren krediduen arabera egokituko da, eta baliteke hasiera batean eskatutako zenbatekoarekin bat ez etortzea.

B. JUSTIFIKAZIO TEKNIKO ETA FINANTZARIOA

Emandako diru-laguntzen onuradunek hitzarmenean agertzen diren egiaztagiri guztiak aurkeztu beharko dituzte:

- LLETek emandako ereduaren araberako **txosten teknikoa**, proiektuaren amaieran.
- LLETek emandako ereduaren araberako **finantza-txostena**, proiektuaren amaieran.
- LLETek emandako **kapitalizazio-inprimakia**, proiektuaren amaieran.

Dokumentu guztiak LLETek eskainitako plataforman sartu behar dira, formatu elektronikoan.

Onuradunek, halaber, konpromisoa hartzen dute sei hilean behin proiektuaren aurrerapenen berri emateko.

10. KOMUNIKAZIOA

Proiektuak bertan parte hartzen duten bazkideen publizitate eta komunikazio-betebeharra errespetatu behar du. Taldeburuak eta bazkideek **nahitaez** gehitu behar dituzte Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea LLETen logotipoak, eta erakundearen baterako finantzaketaren aipamena egin beharko dute proiektuarekin zuzenean lotutako edozein dokumentutan (gonbidapen-txartela, gutuna, kartela, web orria, liburuxka, etab.).

Betebehar hori proiektuari buruzko informazio eta komunikazio-dokumentu guztiei aplikatzen zaie, baita proiektua jendaurrean sustatzeko, abiarazteko edo egikaritzeko antolatutako edozein ekitaldiri ere: prentsaurrekoa, mintegia, ikuskizuna, ekitaldia, emanaldia, hitzaldia, etab. Akitania Berria Euskadi Nafarroa LLETen logotipoak taldeburuaren eta bazkideen webgunean egon behar du, hala badagokio.

Proiektuaren esparruan antolatutako edozein ekitaldi lotu beharko da Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdearekin. Erakundeari ekitaldi bakoitzaren berri eman behar zaio, idatzizko gonbidapen baten bidez, arrazoizko epean.

Proiektuaren amaieran, proiektuen deialdia kapitalizatzeko ekitaldi edota ekimenetan parte hartzeko eskatu ahal izango zaie taldeburuari eta bere bazkideei.

Deialdi honetara aurkezten diren proiektuek klausula hau onartzen dute.

11. INFORMAZIOA ETA KONTAKTUA

Euroeskualdearen webgunean kontsulta daitezke proiektuen deialdiko dokumentu ofizialak eta hautagaitza prestatzeko beharrezko elementu garrantzitsuak, www.euroregion-naen.eu:

- Euroeskualdearen plan estrategikoa.
- Proiektuen arduradunentzako gida.
- Hautagaitza osatzeko beharrezko inprimakiak, dokumentuak, gidak eta ereduak.

Euroeskualdeak ezin du bermatu beste webgune batzuetatik deskargatutako dokumentuen baliozkotasuna.

Proiektuen deialdiaren arduradunarekin harremanetan jartzeko idatzi helbide honetara: leyre.azcona@euroregion-naen.eu